# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**7233**

16/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Turismoa Antolatzeko Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak abenduaren 23ko 16/2008 Legea, Turismoa Antolatzeko Legea aldatzekoa, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

16/2008 Legea, abenduaren 23koa, Turismoa Antolatzeko Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Proposaturiko aldaketaren helburua indarrean dagoen arau-esparrua eguneratzea da, Euskadin Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legea eguneratzea, alegia. Azken hamarkadan, euskal turismo-sektorean bilakaera nabarmena gertatu da; proposatutako aldaketak bilakaera horretan oinarritzen dira; bestela esateko, araudia bilakaera positibo horretara egokitzeko premian. Gaur egun, turismo-sektoreak BPGren % 5,2ko ekarpena egiten dio ekonomiari, eta enpleguari eta errentari dagokienez, hazteko ahalmen handia duen sektore ekonomiko eta estrategikoa da, Euskadiren irudia mundu osora zabaltzen eta hobetzen laguntzen duela.

Aldiz, turismo-eskaria ikertzeko azterlanen arabera, eskari hori aldatu egin da eta euskal turismo-eskaintzaren profila aldatu eta egokitzea komeni da, betiere aldaketa horiek legean ere jasota.

Hori horrela izanik, Turismoaren Mundu Erakundeak mundu osoko prospektiba egin du («Tourism 2020 vision») 2020. urtean bidaiatuko duen jendeari buruz, eta azterlan horretan honako aldaketa hauek aipatzen dira: eskaria gehiago dibertsifikatzea, eta, horren ondorioz, turismo-produktuen mikrosegmentazioa eta espezializazioa; kalitatea, balio ordezkaezintzat hartuta; turismo iraunkor eta arduratsua; eta bezeroen interes berria, izan ere, helmuga turistikoaren azpiegituren egoera baino gehiago, turismo-esperientziaren balio subjektiboa bilatuko baitute.

Horren osagarri, datozen urteotan hazkunde-kuota handienak izango dituzten eskari-segmentuak honako hauek izango dira: kultura-turismoa, abentura-turismoa eta ekoturismo edo natura-turismoa; eta hain justu euskal turismo-eskaintzak aukera ezin hobeak ditu segmentu horietan.

Euskadira datorren bisitariaren portaera eta tipologia aztertzen duen Ibiltur inkestak datu adierazgarriak eskaini dizkigu gaur egun EAEra etortzen diren turisten

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**7233**

LEY 16/2008, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley de Ordenación del Turismo.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente ley:

Ley 16/2008, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley de Ordenación del Turismo

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La modificación propuesta tiene por objeto actualizar el marco normativo vigente, la Ley 6/1994 de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo en el País Vasco. Los cambios propuestos se sustentan en la notable evolución acaecida en el sector turístico vasco en la última década y, por tanto, en la necesidad de adaptar la normativa a esta positiva evolución. En la actualidad el sector turístico vasco aporta a la economía un 5,2% del PIB y se concibe como un sector económico y estratégico con gran capacidad de crecimiento en términos de empleo y renta, y que contribuye a la apertura y mejora de la imagen de Euskadi en el mundo.

Los estudios de investigación de la demanda turística arrojan cambios en dicha demanda que nos recomiendan modificaciones y adaptación del perfil de la oferta turística vasca que deben reflejarse en la ley.

Así las previsiones de la Organización Mundial del Turismo (OMT), en su estudio de prospectiva mundial sobre las personas que viajarán el año 2020 («Tourism 2020 vision»), apuntan los siguientes cambios: mayor diversificación de la demanda y, por lo tanto, microsegmentación y especialización de los productos turísticos; la calidad como valor no sustituible; el turismo sostenible y responsable; y el nuevo interés de la clientela, que ya no se centra en las condiciones de las infraestructuras del destino turístico, sino en el valor de lo subjetivo en la experiencia turística.

Complementariamente, los segmentos de demanda con mayores cuotas de crecimiento para los próximos años serán el turismo cultural, el turismo de aventura y el ecoturismo o turismo de naturaleza, segmentos en los cuales la oferta turística vasca encuentra sus mejores oportunidades.

La encuesta Ibiltur de comportamientos y tipologías de visitantes en Euskadi, igualmente nos ofrece datos reveladores sobre el principal cambio que ha tenido

profilean eta bidaiaren motibazioan izan den aldaketa nagusiari buruz; izan ere, aisialdiko bidaiak dira nagusi gaur egun, orain arte lanak eragindako bidaiak nagusi izanik.

Ikuspegi horrekin bat etorriz, egungo Euskal Turismoaren Lehiakortasun Planak honako helburu hauek biltzen ditu: Euskadik hiri- eta kultura-turismoan Estatuko eta nazioarteko merkatuan lortu duen posizioa sendotzea; natura-turismoa bultzatzea produktu turistiko berriak sortuz, hala nola ekoturismoa, Santiago Bidea, mendi-ibiliak, turismo ornitologikoa eta mendiko bizikletak; halaber, sektorea lehiakorragoa izan dadin, turismo-araudia garatu eta hobetzea.

Era berean, ezin ditugu alde batera utzi gure Autonomia Erkidegoaren lehiakide izan daitezkeen helmugetako lege-esparruetan egiten dituzten aurrerapenak, aurrerapen horiek lehen aipatutako joera-aldaketen adierazle baitira.

Horretaz gain, egungo legearen artikuluetarako proposatu diren aldaketen eragile izan dira honako gertakari hauek ere:

– Legean ez dira barne hartzen ostatu hartzeko figura jakin batzuk: landetxeak; eta denboraren poderioz, EAEko landa-ostatuak profesionalizatzeko esanguratsu eta ezinbestekoak izan direla ikusi dugu.

– Hotelen osagarri diren ostatu hartzeko beste figura batzuk izatea; esaterako, oporretako etxebizitza turistikoak eta etxe partikularretan ostatu hartzea. Figura horiek ez dute betetzen kalitate-estandarrik, ireki eta martxan jartzeko eskakizun-maila oso txikia baita legean, baina Euskadin ez dute ezarpen-maila handirik lortu, EAEko garapen ekonomikoari gainbalio txikia ematen diotela. Gaur egun, EAErako proposatutako garapen turistikoaren eredu berriarekin ez datoz bat, eredu berria kalitatean, iraunkortasunean eta gure kultura eta paisaiaren balioak indartzean oinarritzen baita.

– Ohikotasunaren kontzeptu zabala; zenbait ostatu motaren bizitegi-erabilera baldintzatzen du kontzeptu horrek eta ez dator bat, inolaz ere, Turismoaren Munduko Erakundeak emandako gomendioekin turista kontzeptua eta horrek dakarren erabilera turistikoaren behin-behinekotasuna definitzeko garaian. Ohikotasunaren kontzeptu zabal horrek –batik bat, apartamentu turistikoei dagokienez– turismorako ostatuen bizitegi-erabilera errazten du, turisten trafikoari begirako ostatu-eskaintza desitxuratzen dela.

– Kanpinak garatzeko legez ezarritako mugak; kanpinei buruzko legedian ez da ematen behar adina pizgarri sektore horretako enpresa-ekimena bultzatzeko, eta ez da estandarrik bermatzen ere, erabiltzaileei eskaintzen

lugar en el perfil de las y los turistas que actualmente visitan el País Vasco, en la motivación del viaje: su perfil mayoritariamente es el de ocio, frente a la tradicional preponderancia del trabajo como motivo principal del viaje.

Coherentemente con esta transformación del perfil de la demanda, el vigente Plan de Competitividad del Turismo Vasco recoge entre sus objetivos: consolidar el posicionamiento de Euskadi dentro del turismo de ciudad y cultural en el mercado estatal e internacional; el impulso del turismo de naturaleza con el desarrollo de una batería de nuevos productos turísticos, como son el ecoturismo, el Camino de Santiago, el senderismo, el turismo ornitológico y las bicicletas de montaña; así como el desarrollo y mejora de la normativa turística para la mejora de la competitividad del sector.

Igualmente no podemos olvidar el avance de los marcos normativos de los destinos que pueden ser competencia de nuestra Comunidad, pues algunos de ellos reflejan los cambios de las tendencias anteriormente señaladas.

Adicionalmente, los cambios que se proponen en el articulado de la actual ley obedecen también a los siguientes hechos:

– La ausencia en la ley de figuras alojativas que se han ido relevando como muy significativas y necesarias para la profesionalización de los alojamientos rurales del País Vasco, como es la casa rural.

– La presencia de otras figuras de alojamiento complementarias al alojamiento hotelero, como las viviendas turísticas vacacionales y el alojamiento en casas particulares, que carecen prácticamente de estándares de calidad, pues han sido diseñadas en la ley con escasos niveles de exigencia para su apertura y funcionamiento, tienen una reducida implantación en Euskadi y aportan escasas plusvalías al desarrollo económico de Euskadi; se presentan en la actualidad como un producto escasamente alineado con el nuevo modelo de desarrollo turístico concebido para Euskadi, basado en la calidad, en la sostenibilidad y en la puesta en valor de nuestros valores culturales, rurales y paisajísticos.

– El laxo concepto de habitualidad, que condiciona el uso residencial de las diferentes tipologías de alojamiento y que se encuentra totalmente desligado de las recomendaciones de organizaciones como la OMT cuando definen el concepto de turista y la intrínseca temporalidad del uso turístico, y que especialmente en la figura de los apartamentos turísticos facilita el uso residencial de los alojamientos turísticos, desvirtuando la oferta alojativa dedicada al tráfico turístico.

– Las limitaciones normativas impuestas para la promoción de los campings, cuya configuración actual no incentiva de manera suficiente la iniciativa empresarial en el sector ni garantiza un estándar adecuado del nú-

zaizkien zerbitzu osagarrien kopuruari eta kalitateari dagokienez, betiere inguruko lehiakideek eskaintzen dutenarekin alderatuta.

– Apartamentu turistikoak zer diren zehazteko garaian, legegileak emandako definizio anbiguo eta zalantzagarria; esate baterako, «eraikuntza aurrefabrikatuak» kontzeptua aipatzen du, eta kontzeptu horren bidez, apartamentu turistikoaren ohiko figurarekin inolako zerikusirik ez duen zerbait uler daiteke.

– Legearen zehapen-araubidea eguneratzeko premia; 2003. urtean onartutako Kontsumitzaileen Estatutuari buruzko Lege berriaren ildoari jarraiki, zenbait egokitzapen egitea.

– Turismoaren arau-esparrua berraztertu eta eguneratzeko premia, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera; izan ere, lehiakortasuna ezin da aitzakia izan pertsonen oinarrizko eskubideak urratzeko; azterketa eta gaurkotze hori egin ondoren, kasuan kasuko arauzko irizpenak eman dira.

***Lehen artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 4. artikuluko 3. paragrafoko c) idatz-zatia eta lege bereko 5. paragrafoa berriz idazten dira, eta honela geratzen dira:

«c) Lehiakortasun-diagnostikoei, plan estrategikoei eta helmuga turistikoei buruzko azterketak egiteko laguntza. Azterketa horiek beren datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztu beharko dituzte, eta, hala badagokio, azterketaren xede den gaia ikertzerakoan genero-ikuspegia gaineratu beharko dute.

5.– Turismoaren sektorean lanbide-heziketa biziagotzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, eskakizun sozioekonomiko orokorren arabera eta enplegu-politikan arreta berezia jarrita, eta bertan genero-ikuspegia gaineratzea».

***Bigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 8. artikuluko 4. paragrafoa berriz idazten da, eta honela geratzen da:

«4.– Turismo Administrazioak emandako jarduera-baimena eta sailkapena bere horretan mantenduko dira beraiek emateko orduan kontuan hartu diren baldintzak betetzen diren bitartean. Alabaina, jarduera-baimen eta sailkapen horiek ezeztatu edo aldatu egin ahal izango dira beraiek ematea eragin zuten inguruabarrak betetzen ez direnean edo desagertzen direnean, edo beste inguruabar batzuk gertatzen direnean

mero y calidad de los servicios complementarios que se prestan a las personas usuarias de los mismos, en comparación con los que ofrece la competencia de las áreas limítrofes.

– La ambigua y equívoca definición empleada por quien legisla al caracterizar la figura de los apartamentos turísticos cuando, por ejemplo, emplea conceptos como «construcciones prefabricadas», pues se posibilita su vinculación conceptual a otras figuras radicalmente diferentes de la figura tradicional de apartamento turístico.

– La necesidad de actualizar el régimen sancionador de la ley, haciendo algunos ajustes en la línea propuesta por la reciente Ley de Estatuto de las Personas Consumidoras aprobada el pasado año 2003.

– La necesidad de revisar y actualizar el marco normativo turístico en los términos contemplados en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, dado que la competitividad nunca puede ir en perjuicio de los derechos fundamentales de las personas. En consecuencia con dicha revisión y actualización se emitirán los informes preceptivos correspondientes.

***Artículo primero.***– Se da una nueva redacción a la letra c) del párrafo 3 del artículo 4 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, y al párrafo 5 del mismo, que quedan redactados en los siguientes términos:

«c) Apoyo a la realización de estudios relativos a diagnósticos de competitividad, planes estratégicos, y destinos turísticos. Estos estudios deberán presentar sus datos desagregados por sexo e introducir la perspectiva de género en el análisis de la materia objeto de estudio siempre que corresponda.

5.– La adopción de las medidas precisas para la intensificación de la formación profesional en el sector turístico, en el marco de las exigencias socioeconómicas generales y con especial atención a los objetivos de la política de empleo y a la incorporación de la perspectiva de género en la misma».

***Artículo segundo.***– Se da una nueva redacción al párrafo 4 del artículo 8 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«4.– La autorización de actividad y la clasificación otorgadas por la Administración turística se mantendrán en tanto sean cumplidos los requisitos que se han tenido en cuenta al efectuar aquéllas. Podrán ser revocadas o modificadas motivadamente, previa instrucción del oportuno expediente en el que se dará audiencia a la persona interesada, cuando se incumplan o desaparezcan las circunstancias que motivaron su otorgamien-

baimenak ematerakoan egon izan balira haiek ukatzea justifikatuko zuketenak. Baimenen ezeztapena edo aldaketa egin aurretik, ordea, dagokion espedientearen instrukzioa egingo da, eta hartan aukera emango zaio interesdunari bere iritzia adierazteko».

***Hirugarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 11. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«11. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Turismo-ostatuko enpresak dira lanbide gisa eta ohiko jardun gisa, aisialdi-helburuekin edo negozio edo bestelako arrazoiengatik, pertsonei aldi baterako ostatua ematen dietenak. Ostatua prezio baten truke emango da, zerbitzu osagarriekin edo zerbitzu osagarririk gabe, eta ostatu-emateak ezin izango du eragin bizileku-aldaketarik ostatu-hartzailearentzat.

2.– Lege honen ondorioetarako, aldi baterako ostatutzat hartzen da urtebetetik beherako denboran modu jarraituan eskaintzen dena».

***Laugarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 12. artikuluko 2. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«2.– Hotelez kanpoko turismo-ostatuak dira kanpinak eta kanpatze-turismoko beste mota batzuk, landetxeak, nekazaritza-turismoak, turismo-apartamentuak eta turismo-aterpetxeak. Bestelako ostatu-mota oro ere turismo-ostatu izango da, baldin eta hura baimendu beharra interes orokorreko arrazoiekin justifikatzen bada eta erregelamendu bidez zehazten bada».

***Bosgarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 16. artikuluko 1. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira hotelen multzoko kategoriak, baita sailkapenerako irizpidetzat hartuko diren baldintzak ere».

***Seigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 17. artikuluko 2. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«2.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira apopilo-etxeen multzoko kategoriak, baita sailkapenerako irizpidetzat hartuko diren baldintzak ere».

***Zazpigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 19. artikuluko 2. eta 4. paragrafoa berriz idazten dira, eta honela geratzen dira:

to o sobrevinieran otras que, de haber existido, habrían justificado la denegación de la misma».

***Artículo tercero.***– Se da una nueva redacción al artículo 11 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 11.– Concepto.

1.– Son empresas de alojamiento turístico aquéllas que se dedican, de manera profesional y habitual, mediante precio, a proporcionar alojamiento temporal con fines de ocio, por negocios u otros motivos, sin constituir cambio de residencia para la persona alojada, con o sin prestación de servicios de carácter complementario.

2.– A los efectos establecidos en la presente ley, se entiende por alojamiento temporal el que se ofrece por un periodo de tiempo consecutivo inferior a un año».

***Artículo cuarto.***– Se da una nueva redacción al párrafo 2 del artículo 12 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«2.– Son alojamientos turísticos extrahoteleros los campings y otras modalidades de turismo de acampada, las casas rurales, los agroturismos, los apartamentos turísticos y los albergues turísticos, así como cualesquiera otras modalidades cuando la necesidad de un régimen de autorización esté justificada por razones de interés general y reglamentariamente se determinen».

***Artículo quinto.***– Se da una nueva redacción al párrafo 1 del artículo 16 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«1.– Reglamentariamente se determinarán las categorías del grupo de hoteles, así como los requisitos que habrán de servir de criterios para la clasificación».

***Artículo sexto.***– Se da una nueva redacción al párrafo 2 del artículo 17 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«2.– Reglamentariamente se determinarán las categorías del grupo de pensiones, así como los requisitos que habrán de servir de criterios para la clasificación».

***Artículo séptimo.***– Se da una nueva redacción a los párrafos 2 y 4 del artículo 19 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que quedan redactados en los siguientes términos:

«2.– Hala ere, administrazioak turismo-kanpalekuetan aurrez fabrikatutako zurezko edo antzerako osagai finkoak era iraunkorrez jartzeko baimena emango du, betiere instalazio horiek erregelamendu bidez ezarritako toki-eskaintza osoaren ehunekoa gainditzen ez badute.

4.– Kanpinen izaera kontuan hartuta, lursailak saltzea eta hamaika hilabetetik gora alokatzea debekatzen da, lursail jakin batzuen kasuan izan ezik; horien kasuan, ezaugarriak kontuan hartuta, alokatzeko aldi laburragoa finkatu ahal izango da erregelamendu bidez».

***Zortzigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 21. artikuluko 1. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira turismo-kanpalekuen kategoriak, baita sailkapenerako irizpidetzat hartuko diren baldintzak ere».

***Bederatzigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen II. tituluaren II. kapituluko 3. atalaren izena eta atal horretako 22., 23. eta 24. artikuluak aldatu egiten dira eta honela geratzen dira idatzita:

«3. atala. Kanpaketa-turismoko beste modalitate batzuk

22. artikulua.– Kanpaketa-eremu naturalak.

Kanpaketa-eremu naturalak dira eremu batzuk kokapen, topografia eta baso-aberastasun originala edo bestelako inguruabar berezi behar bezala egiaztatu bat daukatenak eta prezio baten truke, oporedo aisialdi-helburuekin, aldi baterako okupatzeko baliagarri direnak. Okupazio hori, kanpinekin alderatuta, naturari dagokionez hurbiltasun handiagoz eta ustiatze-moduari dagokionez modu arinagoz egingo da, eta okupazio-baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Kanpaketa-eremu naturalak natur gune babestuetan edo Natura 2000 sareko tokietan ezarri ahal izateko, kasuan kasuko antolaketa- eta kudeaketa-planetan jasotako baldintzak bete beharko dira. Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak uste baldin modu nabarmenean eragin dakiekeela Natura 2000 sareko tokiei, habitat naturalen eta basa fauna eta floraren kontserbazioari buruzko 92/43/CEE direktibak 6. artikuluan dakarren ebaluazioa egingo zaio kanpaketa-eremuaren proiektuari. Horrez gainera, bete beharrekoa izango da ingurumen-eraginaren ebaluazioari dagokionez kasu bakoitzean aplitzekoa den legerian ezarritakoa ere.

23. artikulua.– Kulturaren, jolasaren edo kirolaren arloko ekitaldietarako aldi baterako kanpaketa-eremuak.

«2.– No obstante, la Administración autorizará la instalación en los campamentos de turismo de elementos fijos prefabricados de madera o similares, siempre que dichas instalaciones no superen el porcentaje de la oferta total de plazas establecido reglamentariamente.

4.– Dada la naturaleza de los campings, queda prohibida la venta de parcelas o su arrendamiento por tiempo superior a once meses, salvo determinadas parcelas en las que reglamentariamente podrá fijarse un plazo de arrendamiento inferior atendiendo a la características de las mismas».

***Artículo octavo.***– Se da una nueva redacción al párrafo 1 del artículo 21 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«1.– Reglamentariamente se determinarán las categorías de los campamentos de turismo, así como los requisitos que habrán de servir de criterios para la clasificación».

***Artículo noveno.***– Se modifica la denominación de la sección 3.ª del capítulo II del título II de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, y los artículos 22, 23 y 24 de la misma, que quedan redactados en los siguientes términos:

«Sección 3.ª Otras modalidades de turismo de acampada

Artículo 22.– Áreas naturales de acampada.

Son áreas naturales de acampada las constituidas por espacios de terreno que, por su original situación, topografía, riqueza forestal o cualquier otra circunstancia peculiar debidamente acreditada, sirvan a las finalidades de ocupación temporal mediante precio con fines vacacionales o de ocio, de un modo más cercano a la naturaleza y menos intenso en el modo de explotación que los campings, en las condiciones que reglamentariamente se determinen.

La implantación de las áreas naturales de acampada en espacios naturales protegidos o en los lugares de la red Natura 2000 estará condicionada a lo establecido en sus respectivos planes de ordenación o gestión. En los casos en que el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma considere que se puede afectar apreciablemente a los lugares de la Red Natura 2000, el proyecto de área de acampada se someterá a la adecuada evaluación establecida en el artículo 6 de la directiva 92/43/CEE, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres, todo ello sin perjuicio de lo establecido en la legislación sobre evaluación de impacto ambiental que resulte de aplicación a cada caso.

Artículo 23.– Áreas provisionales de acampada para eventos culturales, recreativos o deportivos.

1.– Kulturaren, jolasaren edo kirolaren arloko ekitaldietarako kanpaketa-eremutzat hartzen dira horrelako ekitaldiren bat egiteko baimendutako eremuak, eta ekitaldiak irauten duen aldian soilik funtzionatuko dute.

2.– Udalari dagokio bere barrutian instalatu nahi den kanpaketa-eremua, erregelamendu bidez ezartzen diren txostenak aztertu ondoren, baimentzea. Nolanahi ere, udalak lurraren jabetza- eta erabilera-eskubidea errespetatzen direla egiaztatuko du, eta segurtasunari eta osasunari dagokienez, bai eta lurraldeko natura, historia, kultura, hirigintza, arte, paisaia, nekazaritza, basogintza eta faunaren balioak errespetatzeari dagokienez ere, beharrezkoak diren baldintzak bermatuko ditu.

3.– Kulturaren, jolasaren edo kirolaren arloko ekitaldietarako kanpaketa-eremuak ezingo dira instalatu kanpinak jartzea debekatuta dagoen tokietan.

24. artikulua.– Iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak.

1.– Iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak dira lursail batzuk erregelamendu bidez zehazten den motako ibilgailuek, bidean doazela atsedena hartze aldera eta ibilgailuetan pilatutako hondakinak uzte aldera, prezio baten truke, aldi baterako okupatzeko direnak. Lursail horiek jendearentzat irekita eta behar bezala mugatuta, hornituta eta egokituta egongo dira eta erregelamenduz zehaztutako ibiligailuek gutxieneko kopuru batean okupatuko dituzte.

2.– Iragaitzazko autokarabanen eta karabanen harrera-eremu bereziak soilik horrelako eta antzeko ibilgailuek erabiltzeko dira. Aurreko atalean sartutzat hartu ez daitezkeen kanpin-dendak edo aterpe mugikorrak ezin izango dira haietan instalatu. Era berean, eremu berezi horietan ezin izango da instalatu aterpetxe finkorik edo antzeko bestelakorik, erabiltzaileek ostatu hartzeko.

3.– Debekatua dago establezimendu berezi horietako lursailak saldu edo azpierrentan ematea.

4.– Eremu hauek erregulatzen dituen erregelamendua bat etorriko da kasu bakoitzean aplikatzekoa den ingurumen-legerian ezarritakoarekin».

***Hamargarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 25. eta 26. artikuluak berriz idazten dira, eta honela geratzen dira:

«25. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Nekazaritza-turismoko establezimenduak dira landa-inguruan kokatuta eta nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapenetan integratuta daudenak eta dagokion landa-eremuko berezko

1.– Son áreas de acampada para eventos culturales, recreativos o deportivos las autorizadas con ocasión de uno de dichos eventos, y su funcionamiento está limitado a la duración del mismo.

2.– Corresponde al ayuntamiento en cuyo término municipal se quiere instalar el área de acampada autorizar la misma, a la vista de los informes que reglamentariamente se establezcan. En todo caso, el ayuntamiento verificará el respeto al derecho de propiedad y de uso del suelo, y garantizará las necesarias condiciones de seguridad, sanidad y respeto a los valores naturales, históricos, culturales, urbanos, artísticos, paisajísticos, agrícolas, forestales y faunísticos del territorio de que se trate.

3.– Las áreas de acampada para eventos culturales, recreativos o deportivos no podrán instalarse en los emplazamientos prohibidos para los campings.

Artículo 24.– Zonas especiales de acogida de autocaravanas y caravanas en tránsito.

1.– Las zonas especiales de acogida de autocaravanas y caravanas en tránsito están constituidas por espacios de terreno debidamente delimitados, dotados y acondicionados, que están abiertos al público para su ocupación transitoria a cambio de precio, por un mínimo de vehículos de esa clase que reglamentariamente se determine y que acuden a ellas con la finalidad de descansar en su itinerario y deshacerse de los residuos almacenados en los mismos.

2.– Las zonas especiales de acogida de autocaravanas y caravanas en tránsito están reservadas para el uso exclusivo de éstas y vehículos análogos, por lo que no podrán instalarse tiendas de campaña o albergues móviles que no puedan entenderse incluidos en el apartado anterior. Tampoco podrán instalarse en estas zonas especiales de acogida albergues fijos o asimilados de ninguna clase para alojamiento de las personas usuarias.

3.– Está prohibida la venta y el subarriendo de las parcelas de estos establecimientos.

4.– El reglamento que regule estas zonas será acorde a lo establecido por la legislación ambiental que sea de aplicación en cada caso».

***Artículo décimo.***– Se modifican los artículos 25 y 26 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que quedan redactados en los siguientes términos:

«Artículo 25.– Concepto.

1.– Son establecimientos de agroturismo aquellos que, estando en el medio rural e integrados en explotaciones agropecuarias, ofrecen mediante precio servicio de alojamiento, con o

arkitekturako eraikinetan, prezio baten bitartez, mantenuarekin edo mantenurik gabe, ostatu-zerbitzua ematen dutenak. Nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapentzat, berriz, indarreko legerian horri buruz ezartzen dena hartzen da.

2.– Nekazaritza-turismoko establezimenduak, beren instalazioen eta zerbitzuen arabera, erregelamendu bidez zehazten diren kategorietan sailkatu ahal izango dira, hala nahi izanez gero.

26. artikulua.– Baldintzak.

Nekazaritza-turismoko establezimenduaren titularra nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiapenaren titular edo titularkide izango da eta bere ohiko etxebizitza establezimendu hori edo horren inguruan egongo den etxebizitza bat izango da nahitaez».

***Hamaikagarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen II. tituluaren II. kapituluko 5. atalaren izena eta atal horretako 27. artikulua aldatu egiten dira eta honela geratzen dira idatzita:

«5. atala. Landetxeak.

27. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Landetxeak dira establezimendu batzuk landa-inguruan kokatuta daudenak eta dagokion landa-eremuko berezko arkitekturako eraikinetan, prezio baten bitartez, mantenuarekin edo mantenurik gabe, ostatu-zerbitzua ematen dutenak. Landetxearen titularrak edo, bestela, kudeaketaren arduradunak establezimenduan bertan edo establezimenduaren inguruan eduki beharko du bere ohiko etxebizitza.

2.– Landetxeak, beren instalazioen eta zerbitzuen arabera, erregelamendu bidez zehazten diren kategorietan sailkatu ahal izango dira, hala nahi izanez gero».

***Hamabigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen II. tituluko II. kapituluari 6. atala gehitzen zaio, eta 28. artikulua berriz idazten da. Honela geratzen dira:

«6. atala. Apartamentu turistikoak.

28. artikulua.– Kontzeptua.

1.– Apartamentu turistikoak dira establezimendu batzuk gutxienez logela, bainugela, egongela, jangela eta sukaldea dituzten ostatu-unitatez osatutakoak. Ostatu-unitate horiek multzo independente gisa eskainiko dira eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipiopean kudeatuko dira, eta profesionalki eta ohikotasunez aldi baterako ostatua ematera bideratuko dira, betiere ostatu-hartzailearentzat bizileku-aldaketarik eragin gabe.

2.– Lege honen ondorioetarako, ustiapen-unitatetzat hartzen da turismorako

sin manutención, en edificios de arquitectura característica del medio rural en el que se ubican. Se entiende por explotación agropecuaria lo establecido al efecto en la legislación vigente.

2.– Los establecimientos de agroturismo, dependiendo de sus instalaciones y servicios podrán clasificarse voluntariamente en las categorías que reglamentariamente se determinen.

Artículo 26.– Requisitos.

La persona titular del establecimiento de agroturismo debe ser titular o cotitular de la explotación agropecuaria y debe tener su residencia habitual en dicho establecimiento o en sus aledaños».

***Artículo undécimo.***– Se modifica la denominación de la sección 5.ª del capítulo II del título II de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, y el artículo 27 de la misma, que quedan redactados en los siguientes términos:

«Sección 5.ª De las casas rurales

Artículo 27.– Concepto.

1.– Son casas rurales aquellos establecimientos que estando en el medio rural, ofrecen mediante precio servicio de alojamiento, con o sin manutención, en edificios de arquitectura característica del medio rural en el que se localizan. La persona titular o, en su caso, la responsable de la gestión debe tener su residencia habitual en el establecimiento o en sus aledaños.

Las casas rurales dependiendo de sus instalaciones y servicios podrán clasificarse voluntariamente en las categorías que reglamentariamente se determinen».

***Artículo decimosegundo.***– Se añade la sección 6.ª al capítulo II del título II de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, y se da nueva redacción al artículo 28, que quedan redactados en los siguientes términos:

«Sección 6.ª Apartamentos turísticos

Artículo 28.– Concepto.

1.– Son apartamentos turísticos aquellos establecimientos integrados por unidades de alojamiento compuestas, al menos, por dormitorio, baño, salón-comedor y cocina, y que, ofertadas como conjuntos independientes y gestionadas bajo el principio de unidad de explotación empresarial, se destinan de forma profesional y habitual a proporcionar alojamiento temporal sin constituir cambio de residencia para la persona alojada.

2.– A los efectos de esta ley, por unidad de explotación se entiende la exigencia de someti-

apartamentuen ostatu-arloko turismo-ustiapeneko jarduera enpresa-titular bakar menpean egon beharra.

3.– Aurreko paragrafoan adierazitako turismo-ustiapenaren titularrak establezimenduaren turismo-ustiapenerako gaituko dituen pertsona jabeen titulu juridikoa eskuratu behar du jabeengandik, ustiapenetik ondorioztatzen diren erantzukizunak bermatzeko.

4.– Apartamentu turistikoak, beren instalazioen eta zerbitzuen arabera, erregelamendu bidez ezartzen diren kategorietan sailkatuko dira.

5.– Landa-eremuan kokatutako apartamentu turistikoei dagokienez, kasu bakoitzean aplikatzekoa den ingurune-legeriaren baldintzak bete beharko dituzte».

***Hamahirugarren artikulua.–*** Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legeari 7. atala eta 28 bis artikulua gehitzen zaizkio. Honako idazkera hau izango dute:

«7. atala. Turismo-aterpetxeak.

28 bis artikulua.– Kontzeptua.

1.– Turismo-aterpetxeak dira establezimendu batzuk ohe anitzeko geletan, zerbitzu osagarriekin edo zerbitzu osagarririk gabe, ostatua ematen dutenak eta horrez gainera, zuzenean edo hitzartuta, inguruarekin lotutako jarduerak ere eskaintzen dituztenak.

2.– Arauketa honetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Eskola-, hezkuntza- edo gizarte-arrazoiengatik ostatua gela kolektiboetan eskaini ohi duten establezimenduak.

b) Ohe askoko gelak dituzten ostatuak, gela horiek erabiltzeko talde edo erakunde jakin bateko kide izan beharra dagoenean.

c) Gazte Aterpetxeen Sarean integratutako gazte-aterpetxeak, beren arauketa espezifikoaren arabera arituko baitira.

d) Ohe askoko gelak dituzten ostatuak, zerbitzu hori diru-ordainik gabe ematen denean edo emandako diru-kopurua dohaintzan izaten denean.

3.– Erregelamendu bidez zehaztuko dira aterpetxe-taldearen kategoriak eta bete beharreko eskakizunak, bai eta establezimenduen bereizgarriak ere».

***Hamalaugarren artikulua.–*** Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 36. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«36. artikulua.– Kategoriak.

miento a una única titularidad empresarial de la actividad de explotación turística alojativa de los apartamentos turísticos.

3.– La persona titular de la explotación turística referida en el párrafo anterior debe obtener un título jurídico de las personas propietarias que la habilite suficientemente para la explotación turística del establecimiento, con el objeto de garantizar las responsabilidades que se deriven de la misma.

4.– Los apartamentos turísticos, dependiendo de sus instalaciones y servicios, se clasificarán en las categorías que reglamentariamente se determinen.

5.– Los apartamentos turísticos ubicados en el ámbito rural atenderán a las condiciones establecidas por la legislación ambiental que sea de aplicación en cada caso».

***Artículo decimotercero.–*** Se añade la sección 7.ª y el artículo 28 bis a la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que tendrán la siguiente redacción:

«Sección 7.ª Albergues turísticos.

Artículo 28 bis.– Concepto.

1.– Tendrán la consideración de albergues turísticos los establecimientos que faciliten el servicio de alojamiento en habitaciones de capacidad múltiple, con o sin servicios complementarios, junto a la práctica de alguna actividad relacionada con el entorno de forma directa o concertada.

2.– Quedan excluidos de esta regulación:

a) Los establecimientos dedicados a alojamiento en habitaciones colectivas por motivos escolares, docentes o sociales.

b) Los alojamientos en habitaciones múltiples cuando su uso esté condicionado a la pertenencia a un determinado grupo u organización.

c) Los albergues juveniles integrados en la Red de Albergues de Juventud, que se regirán por su normativa específica.

d) El alojamiento en habitaciones múltiples cuando se preste sin contraprestación económica o la cantidad abonada tenga el carácter de donativo.

3.– Reglamentariamente se determinarán las categorías del grupo de albergues y los requisitos que deben reunir estos, así como los distintivos de los establecimientos».

***Artículo decimocuarto.–*** Se da una nueva redacción al artículo 36 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 36.– Categorías.

1.– Jatetxeak eta kafetegiak, beren instalazioen eta zerbitzuen arabera, erregelamendu bidez ezartzen diren kategorietan sailkatuko dira.

2.– Horretaz gain, jatetxeak eta kafetegiak sailkatzeko sistema kualitatiboa aplikatuta zehaztutako produktuak bultzatuko ditu Administrazioak, eta dagokionean, baita onartu ere, sustapenari begira».

***Hamabosgarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 37. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«37. artikulua.– Kontzeptua eta sailkapena.

Turismo-enpresa osagarritzat hartzen dira ostatu-hartzeko establezimendu, jatetxe edo bidaia-agentzia ez izanik, euskal turismo-eskaintza hobetzen dutenak eta erregelamendu bidez hartakotzat sailkatzen diren guztiak».

***Hamaseigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 41. artikulua berriz idazten da, eta honela geratzen da:

«41. artikulua.– Lanbide-heziketa.

Turismo Administrazioak behar diren neurri guztiak hartuko ditu turismo sektoreko lanbideei dagozkien jarduerak gauzatze aldera eta jarduera horietan prestatze eta hobetze aldera, eta besteak beste genero-ikuspegiaren ezarketan lankidetzan arituko da administrazio eskudunarekin. Era berean, enplegu-baldintza onenak bultzatuko ditu turismo sektoreko langile eta profesionalentzat, turismo-eskaintzaren garapena antolatzeko neurrien barruan».

***Hamazazpigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 54. artikuluaren a) idatz-zatia aldatu egiten da, eta honela geratzen da:

«a) Euskal Autonomia Erkidegoa sustatzeko mota guztietako kanpainak diseinatzea eta gauzatzea. Publizitatean hizkera ez-sexista erabiliko da eta publizitatearen arloan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legean adierazitakoa beteko da».

***Hemezortzigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 66. artikuluaren c), l) eta q) idatz-zatiak aldatu egiten dira, eta honela geratzen dira:

«c) Administrazioak aldez aurretik baimendu gabe, jarduera gauzatzeko oinarrizko baldintzak aldatzen dituzten eta establezimenduaren sailkapenean, kategorian edo ostatu-edukieran ondorioak dituzten egiturazko erreformak egitea.

1.– Los restaurantes y cafeterías, dependiendo de sus instalaciones y servicios, se clasificarán en las categorías que reglamentariamente se determinen.

2.– Con carácter complementario, la Administración impulsará y, en su caso, reconocerá, en orden a su promoción, los productos resultantes de la aplicación de un sistema de clasificación cualitativa de restaurantes y de cafeterías».

***Artículo decimoquinto.***– Se da una nueva redacción al artículo 37 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 37.– Concepto y clasificación.

Se consideran empresas turísticas complementarias cualesquiera otras diferentes a los establecimientos de alojamiento, restauración y agencias de viajes, que mejoren la oferta turística vasca y que reglamentariamente se clasifiquen como tales».

***Artículo decimosexto.***– Se da una nueva redacción al artículo 41 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 41.– Formación profesional.

La Administración turística adoptará cuantas medidas sean necesarias, entre ellas la colaboración con la administración competente en la introducción de la perspectiva de género, en orden al ejercicio, formación y perfeccionamiento de las actividades propias de las profesiones turísticas, y fomentará las mejores condiciones de empleo para las personas trabajadoras y profesionales del turismo, dentro de las medidas de ordenación del desarrollo de la oferta turística».

***Artículo decimoséptimo.***– Se modifica la letra a) del artículo 54 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«a) Diseño y ejecución de campañas de todo tipo para la promoción del País Vasco. Toda publicidad realizada utilizará un lenguaje no sexista y se atendrá a lo especificado en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres en materia de publicidad».

***Artículo decimoctavo.***– Se modifican las letras c), l) y q) del artículo 66 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que quedan redactadas en los siguientes términos:

«c) Efectuar reformas estructurales no autorizadas previamente por la Administración que modifiquen los requisitos básicos esenciales para el ejercicio de la actividad y afecten a la clasificación, categoría o capacidad alojativa del establecimiento.

l) Lege honetan aipatzen diren gaietan informatu, zaindu, ikertu, ikuskatu, izapidetu eta gauzatzeko funtzioak betetzeari dagokionez, agintaritza eskudunek edo horien agenteek eskatutako informazioa emateari edo datuak emateari uko egitea edo oztopoak jartzea. Halaber, informazio okerra edo gezurrezko dokumentazioa ematea.

q) Turismo-kanpalekuetan kanpinlari finkoak edo erresidentzialak onartzea, debekatutako kanpaketa-unitateak instalatzea, elementu finkoak ezartzea edo legez edo erregelamenduz baimendutakoa baino aldi luzeagorako edo ehuneko handiagoetan lursailen alokairu-kontratuak sinatzea».

***Hemeretzigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 70. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«70. artikulua.– Berrerortzea eta errepikatzea.

1.– Berrerortzea gertatuko da arau-haustea egin duen pertsonak bi urteko epean gutxienez mota bereko beste arau-hauste bat egiten badu, betiere epai irmoaren bidez arau-haustetzat hartuz gero. Berrerortze-kasuan, arau-hausteari dagokion zehapena gehienezko mailan ezarriko da.

2.– Arau-haustea gertatu den egunean hasiko da epea zenbatzen».

***Hogeigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 73. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Aurreko artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki, gutxienezko mailako, maila ertaineko eta gehienezko mailako zehapenak ezarri ahal izango dira.

2.– Arau-hauste arinak ohartarazpenaren bidez edo 90 eurotik 900 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira. Ohartarazpen-zehapena jarriko da arintzat hartutako arau-hausteen kasuan, baldin eta arau-haustearen nondik norakoak isuna jartzea eskatzen ez badu, eta betiere arau-hauste horretan berrerortzea gertatzen ez bada.

Isun-zehapenaren gutxieneko maila 90 eurotik 225 eurora bitarte izango da; maila ertaina 226 eurotik 450 eurora, eta gehienezko maila 451 eurotik 900 eurora.

3.– Hutsegite larriak isunaren bidez zehatuko dira, gutxieneko mailan 901 eurotik 1.800 eurora bitarte; maila ertainean 1.801 eurotik 4.500 eurora, eta gehienezko mailan 4.501 eurotik 9.000 eurora.

4.– Hutsegite oso larriak isunaren bidez zehatuko dira, gutxieneko mailan 9.001 eurotik

l) La negativa o resistencia a suministrar datos o a facilitar la información requerida por las autoridades competentes o sus agentes en orden al cumplimiento de las funciones de información, vigilancia, investigación, inspección, tramitación y ejecución en las materias referidas en la presente ley. Así como el suministro de información inexacta o documentación falsa.

q) La admisión en los campamentos de turismo de las y los campistas fijos o residenciales, la instalación de unidades de acampada prohibida, así como la instalación de elementos fijos o la celebración de contratos de arrendamiento de parcelas en porcentaje o por tiempo superior al legalmente o reglamentariamente permitido».

***Artículo decimonoveno.***– Se da nueva redacción al artículo 70 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 70.– Reincidencia y reiteración.

1.– Habrá reincidencia cuando la persona responsable de la infracción haya cometido en el término de dos años al menos una infracción de la misma naturaleza y así se haya declarado por resolución firme. En caso de reincidencia, se aplicará en su grado máximo la sanción que se fije para la infracción.

2.– El plazo comenzará a computarse desde el día en que se hubiera cometido la infracción».

***Artículo vigésimo.***– Se da nueva redacción al artículo 73 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«1.– De conformidad con los criterios establecidos en el artículo anterior, las sanciones podrán imponerse en los grados mínimo, medio y máximo.

2.– Las infracciones leves se sancionarán con apercibimiento o multa entre 90 y 900 euros. La sanción de apercibimiento procederá en las infracciones calificadas como leves cuando el carácter de la infracción no haga necesaria la imposición de multa y siempre que no exista reincidencia en la comisión de la misma.

La sanción de multa en su grado mínimo se situará entre los 90 y 225 euros; en su grado medio, de 226 a 450 euros; y en su grado máximo, de 451 a 900 euros.

3.– Las faltas graves se sancionarán con multa en su grado mínimo de 901 a 1.800 euros; en su grado medio, de 1.801 a 4.500 euros; y en su grado máximo, de 4.501 a 9.000 euros.

4.– Las faltas muy graves se sancionarán con multa en su grado mínimo de 9.001 a 13.600

13.600 eurora bitarte; maila ertainean 13.601 eurotik 18.125 eurora, eta gehienezko mailan 18.126 eurotik 45.000 eurora».

***Hogeita batgarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 78. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– Lege honetan aurreikusitako arau-hauste eta zehapenek honako epe hauetan preskribatuko dute:

a) Arau-hauste arinak: urtebetean.

b) Arau-hauste larriak: bi urtean.

c) Arau-hauste oso larriak: hiru urtean».

***Hogeita bigarren artikulua.***– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legeari seigarren erabaki gehigarria gehitzen zaio. Honela geratzen da:

«Seigarrena.– Turismo-erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei dagokienez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera bermatuko dira».

***Hogeita hirugarren artikulua.***– 1.– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen xedapen iragankorraren izena aldatu egiten da, eta orain lehen xedapen iragankorra da.

2.– Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legeari bigarren xedapen iragankorra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:

«Bigarren xedapen iragankorra

Opor- eta turismo-etxebizitzek eta etxe partikularretako gela sailkatuetan ostatu ematen duten alojamenduek, bai eta turismo-trafikora dedikatuko direla jakinarazi dutenek ere, beren izaerari eutsiko diote harik eta, hala dagokionean, lege honetan xedatutakoa betez, bertan aurreikusitako modalitateren batera egokitzen diren arte».

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 26a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

euros; en su grado medio, de 13.601 a 18.125; y en su grado máximo, de 18.126 a 45.000 euros».

***Artículo vigesimoprimero.***– Se modifica el párrafo 1 del artículo 78 de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactado en los siguientes términos:

«1.– Las infracciones y sanciones previstas en esta ley prescribirán en los siguientes plazos:

a) Infracciones leves: un año.

b) Infracciones graves: dos años.

c) Infracciones muy graves: tres años».

***Artículo vigesimosegundo.***– Se añade la disposición adicional sexta a la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactada en los siguientes términos:

«Sexta.– Los derechos lingüísticos de los usuarios turísticos se garantizarán de conformidad con lo previsto en la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias».

***Artículo vigesimotercero.***– 1.– Se modifica la denominación de la disposición transitoria de la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo que pasa a denominarse disposición transitoria primera.

2.– Se añade la disposición transitoria segunda a la Ley 6/1994, de 16 de marzo, de Ordenación del Turismo, que queda redactada en los siguientes términos:

«Disposición transitoria segunda.

Las viviendas turísticas vacacionales y los alojamientos en habitaciones de casas particulares clasificados, así como los que hayan notificado su dedicación al tráfico turístico, mantendrán su condición de tales hasta que, en cumplimiento de lo dispuesto en desarrollo de la presente ley, se adapten, en su caso, a alguna de las modalidades en ella previstas».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.